GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020/06/23 **HISTORIA**

EPAIMAHAI ZK.:
KALIFIKAZIOA

DEITURAK.....

IZENA.....

NANa .....

Hendaian sinatutako protokolo sekretua

Italiako, Alemaniako eta Espainiako gobernuak ados agertu dira honetan:

1. **Alemaniako Reich-eko Führer-aren** eta Espainiako Estatuko buruaren arteko iritzi trukeak, Duce-aren eta Führerraren arteko elkarrizketen ondoren eta hiru herrialdeetako kanpo arazoetako ministroek Erroman eta Berlinen izandako elkarrizketen ondoren, argitu egin du zein jarrera duten gaur egun hiru herrialdeek batak bestearekiko, bai eta gerraren gauzatzean inplizituki dauden eta politika orokorrari eragiten dioten gaiak ere.
(...)
4. Aliatu gisa dituen betebeharrak betez, Espainiak esku hartuko du gerra honetan, **Ardatzeko Potentzien** ondoan, Ingalaterraren aurka, behin Espainiari militarki prest egoteko beharrezkoa duen laguntza militarra eman ondoren, hiru potentzien arteko adostasunez ezarriko den une batean (...). Alemaniak laguntza ekonomikoa bermatuko dio Espainiari, elikagaiak eta lehengaiak emanez, Espainiako herritarren beharrei eta gerraren eskakizunei aurre egiteko.

5. **Gibraltar Espainiara itzultzeaz** gain, Ardatzeko Potentziek adierazten dute, printzipioz, prest daudela ardura hartzeko, Afrikan ezarri beharreko akordio orokor baten arabera, zeina gauzatuko baita Ingalaterrak porrot egin ondorengo bake itunetan, Espainiak Afrikan lurraldeak jaso ditzan, Frantziak konpentsazioa jaso dezakeen adinako hedaduran, azken horri Afrikan balio bera duten beste lurralde batzuk esleituz, baina, **betiere, aldaketarik eragin gabe Alemaniak eta Italiak Frantziaren aurka dituzten pretentsioei**.

6. Protokolo hau isilpekoa izanen da, eta bertan daudenek isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen dute, non eta denen adostasunez ez duten jendaurrean jartzea erabakitzen.

Hendaian, 1940ko urriaren 23an.

HONAKOA ESKATZEN DA:

1. Testuaren laburpena eta testuinguru historikoa…….6 puntu
2. Azaldu itzazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren adierazpenak……...4 puntu

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020/06/23 **HISTORIA**

Fernando VII.ak Santzio pragmatikoaren indargabetzea baliogabetu du

"Nire errege kemenak, eritasun larriaren ondorioz hilzorian nengoela, harriduraz jaso zuen jainkozko miserikordia, mirariz salbatu ninduena eta egoera horretan, dekretu bat sinatu nuen 1830eko martxoaren 29ko **santzio** pragmatikoa indargabetzeko, zeina nire aita ohoragarriak 1789ko Gorteen eskariz eman zuen, Espainiako koroan oinordetza erregularra berrezartzeko. Une hartan bizia amaitzen ari zitzaidan eta, hala, egoera hark eragindako asaldura eta nahigabeak argi eta garbi erakusten dute egintza haren deliberazio eza, bere izaerak eta ondorioek adieraziko ez balute. Errege gisa ere ez nitzake suntsi erreinuko oinarrizko legeak, zeinaren berrezarpena argitaratua bainuen, eta aita gisa ere ez nitzake, borondate askez, nire ondorengoak eskubide ohoragarri eta legitimo horiez gabetu. **Gizon desleial edo ilusoek nire ohea inguratu zuten**, eta nire maitasunaz eta arrunt maitea dudan nire Emazteak espainiarrei dien maitasunaz abusatuz, beraren atsekabea eta nire egoeraren samina areagotu zuten, erreinu osoa pragmatika betetzearen aurka zegoela ziurtatuz, eta indargabetuta geratzen ez bazen sortuko zen odolustea eta hondamen unibertsala haztatuz. [...]

Jakinik orain faltsutasunez kalumniatu zela nire maite espainiarren leialtasuna, zeinak beti izan zaizkien ERREGEEN ondorengoei leial; ongi sinetsirik ez dagoela nire esku, ezta nire nahietan ere, mendez mende eta legez ezarritako **oinordetzaren ohitura antzina-antzinakoa** indargabetzea, tronuan nire aurretik egondako andrezko heroi ospetsuek finkatua, eta erreinuen ahobateko botoak eskatua, libre, orain naizenez, zorigaiztoko zirkunstantzia haietako hersturaz eta eraginez, erabateko borondatez eta neronen mugimenduz, solemnitatez DEKLARATZEN DUT NEUK ustekabean sinaturiko dekretua, **nire gogoak jasan zituen gezurrezko izugarrikerien ondorioa izan zela**, eta deuseza eta baliogabea dela, aurkaratzen baitzaio monarkiaren oinarrizko legeei eta, ERREGE eta aita gisa, nire oinordetza ohoragarriari zor dizkiodan betebeharrei." Madrilgo jauregian, 1832ko abenduaren 31n. Madrilgo Gazeta, 1833ko urtarrilaren 1ean

HONAKOA ESKATZEN DA:

1. Testuaren laburpena eta testuinguru historikoa…….6 puntu
2. Azaldu itzazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren adierazpenak……...4 puntu

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020/06/23 **HISTORIA**

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2020ko DEIALDIA

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa

2020/06/23 **HISTORIA**